

Jakinarazten da behin-behineko Alkateak, 2022 martxoaren 18an honako Dekretu hau eman duela:

"Begarako Udalak obretako bi ofizial igeltsero kontratatzeko edo izendatzeko egindako ohiko deialdiaren oinarriak onartu zituen 2021eko otsailaren 1ean.

Halaber deialdi berean behin behineko izendapen beharrei erantzuteko lanpoltsa osatuko zela jaso zen.

Epaimahaiak 2022ko martxoaren 9an egindako bileran erabaki du prozesu osoan izandako emaitzak eta erreklamazioen inguruan hartu diren erabakiei emandako erantzunak kontuan izanda prozesuko puntuazio orokor hauek onartzea.

NAN	GUZTIRA
15XXXX85N	53,02
34XXXX07A	49,50
30XXXX81V	61,19
15XXXX88Q	64,01
X5XXXX63Y	57,94

Halaber, proposatu du :

1.- Prozesu osoan puntuazio altuena izan duten bi izangaiak, obretako ofizial igeltsero 2 plaza betetzeko, kontratu mugagabearekin kontratatzea; honako hauek dira izangaiak:

- o 15XXXX88Q
- o 30XXXX81V

2.- Aldi baterako obretako ofizial igeltsero premiei erantzuteko lanpoltsa osatzea, lortutako puntuazioaren hurrenkeran; honako hauek dira izangaiak:

NAN	EMAITZAK
15XXXX85N	53,02
34XXXX07A	49,50

3.- Halaber, proposatu du 2. HE egiaztatu ez baina oposizio aldiko beste ariketak gainditu duetenekin 2. lanpoltsa bat osatzea; honako hau da izangaia:

NAN	EMAITZAK
X5XXXX63Y	57,94

Ikusita 15XXXX88Q jaunak 2022ko martxoaren 17an aurkeztu duen idatzian uko egin diola mugagabe izaerarekin Igeltsero lanpostua betetzeko dagokion kontratuari, baina ez ordea lanpoltsan egoteari, **ERABAKI DUT:**

LEHENENGOA: 15XXXX88Q jaunaren uko egitea aintzat hartu eta Obretako ofizial igeltsero 2 plaza betetzeko, kontratu mugagabearekin kontratatzea prozesu osoan puntuazio altuena izan duten hurrengo bi izangai hauek:

- o 30XXXX81V
- o 15XXXX85N

Ikusita Udaleko plantillako 2 langilek erretiro partziala aitortzeko eskaera egin dutela eta horregatik udalak txandakako kontratuak egiteko premia duela, gogoraraztea, **hamaikagarren oinarrian jasotakoari jarraituz**, kontratua sinatzeko eguna erreferentziatzen hartu eta aurreko bi lan egunetan gutxienez enplegu bulegoan lan eske inskribatuta egon beharko direla proposatutako bi izangaiak.

BIGARRENA: Aldi baterako obretako ofizial igeltsero premiei erantzuteko lanpoltsa osatzea, lortutako puntuazioaren hurrenkeran; honako hauek dira izangaiak:

NAN	EMAITZAK
15XXXX88Q	64,01
34XXXX07A	49,50

HIRUGARRENA: Oposizioaldiko 2. hizkuntza-eskakizuna gainditu ez, baina beste ariketak gainditu dituen izangaiarekin lan-poltsa osagarria eratzea; honako hau da izangaia:

NAN	EMAITZAK
X5XXXX63Y	57,94

Azken izangai honi udaleko euskara departamenduak zein Euskara maila duen neurtzeko dagozkion probak egitea.

LAUGARRENA: Erabakiaren jakinarazpena egitea interesdunei, WEB orrian eta udaleko iragarki taulan dagozkion iragarki bidez, eta Obra eta zerbitzuen buruari eta pertsonal sailean."

Ebazpenaren aurkako bideak

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar dezakezu, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea duzu, jakinarazpen hau jasotzen duzun hurrengo egunetik hasita. *

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatzian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsioaren aurretik, berraztertze errekurtsioa jar dezakezu erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena jasotzen duzun hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Dena den, egoki deritzozun beste edozein errekurtsio ere jar dezakezu.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

**Jakinarazpen hau 2022ko martxoaren 18an argitaratu da udaleko iragarki taulan eta bergarako udalaren web orrian*

Bergara, 2022ko martxoaren 18a
Epaimahaiko idazkaria

